

# **GAUR EGUN OSASUN-ANBULATORIO GISA ERABILTZEN DEN LOKALAREN LAGAPEN- HITZARMENA**

## **BILDURIK**

**ALDE BATETIK: On Miguel Urteaga Guembe**, adinez nagusia, NAN zenbakiduna, ACERALIA PERFILES OLABERRIA, IFK B-20435301 eta egoitza Olaberriako luré auzoko z/g dueña, enpresaren izenean eta beronen ordezkari gisa.

**BESTETIK: On Txomin Mendoza Pérez**, adinez nagusia, NAN zenbakiduna, OLABERRIAKO UDALERRIKO Alkatea, berorren izenean eta ordezkari gisa. Eta biek adierazirik kontratatzeko gaitasun légala dutela,

## **AGERTZEN DUTE**

**Lehenik:** ACERALIA PERFILES OLABERRIA enpresa Udal ANBULATORIOA kokatzen den José M<sup>a</sup> Aristrain Noain kalean dagoen lokalaren jabe dela, eta azalera honako hau dela -honi erantsia dago aipatu lokal honen plano (1 Eranskina).

**Lokala: 14 m x 9 m (126 metro karratu)**

**Bigarrenik:** Olaberriko Udalak udalerriko hirigunea osasun-azpiegitura egokiz zuzkitu nahi duela, aipatu udalerriko biztanleriarik handiena biltzen den gunean hain zuzen ere.

Helburu honekin, Udalak azken hileotan negoziazioak izan dituela Aceralia Perfiles Olaberriarekin, eta emaitza lehen deskribatu den lokalaren lagapena, behin-behineko egoeran, izan dela.

**Hirugarrenik:** Aurrez agertutakoa oinarri hartuta hitzarmena formalizatu dela ondorengoan arabera,

## H I Z B A K E T A K

**Lehenik.-** Aceralia Perfiles Olaberria enpresak Olaberriako Udalari doan lagatu eta transmititzen dio adierazpeneko lehen puntuán deskribatu den lokala, bakar bakarrik osasun-anbulatorio gisa erabiltzeko, eta Olaberriko Udalak berau onartu eta eskuratzen du.

**Bigarrenik.-** Udalak hitz ematen du oraingo osasun-zerbitzuak lagapenaren helburu izan diren lokaletan emango edo eskainiko dituela.

**Hirugarrenik.-** Lagapen hau hogeita bost urterako egiten da, beti ere lokal hau aipatu jardueretarako edo helburuetarako erabiltzen bada eta bi aldeak ados baldin badaude luzatu ahal izango da, nola eta bi aldeetako edozeinek besteari ez dion urtebeteko aurrerapenez eta idatziz bestelakorik jakinarazten. Lokala hemen adierazten ez den beste edozein jardueretarako erabiltzeak kontratuaren etetea ekarriko du.

**Laugarrenik.-** Lokalaren ekipamendua nahiz mantentze-gastuak (ura, telefonoa, garbiketa...) bakar bakarrik Olaberriako udalaren kontura izango dira.

**Bosgarrenik.-** Kontratu honen helburutako lokal honetan etorkizunean egin beharko diren konponketen eta mantentze-lanen gastuak -ñola konponketak hala hobekuntza-lanak- bakar bakarrik Olaberriako Udalaren kontura izango dira.

Aipatu lan horiek lagapenaren helburutako lokalaren eiteari, itxurari, azalerari, banaketari... erasaten badiote, aldez aurretik beharko da Aceralia Perfiles Olaberriaren berariazko baimen idatzia. Aipatu baimen honek, horretaz gain, udal Arkitektoaren Txosten Teknikoa beharko du. Klausula hau ez betetzea lokala erabiltzeko lagapen-kontratua eteteko nahikoa arrazoi izango da, eta Udalak gerta litezkeen kalteen eta, bere kasuan, galeren kalte-ordaina eman beharko lioke Aceralia Perfiles Olaberria enpresari.

**Seigarrenik.-** Aceralia Perfiles Olaberria erabilpen-lagapenetik ondoriozta daitekeen edozein arduratik libre geratuko da, berau, ardua, Olaberriako Udalarena izango delarik. **Zazpigarrenik.-** Kontratua etengo balitz, Olaberriako Udalak lokala utzi egin beharko luke, eskubidea izango luke bere jabetzako ondasun higigarriak eta inbentarioan jasotakoak eramateko, baina ez luke jasoko lokalaren beraren hobekuntzarako eta egokitzapenerako eginak lituzkeen gastuengatiko kalte-ordainik. Eta hórrela konstarazteko eta adostasun gisa, baimena ematen dute agiri hau, bikoiztuta, sinatuz, goian aipatzen diren lekuan eta datan.

Olaberrian, 2005eko Urriaren 18an

Txomin Mendoza Pérez  
Olaberriko Alkatea

Miguel Urteaga Guembe  
Aceralia Perfiles Olaberriako  
Zuzendari-Kudeatzailea

